

Ekintza komunitarioa eta inklusiorako gizarte-politikak Gipuzkoan. Esanahia, irismena eta erronkak¹

Ane Ferran Zubillaga

Deustuko Unibertsitatea
aferran@deusto.es

Bakarne Etxeberria Erauskin

Deustuko Unibertsitatea

Cinta Guinot Viciano

Deustuko Unibertsitatea

Asun Berasategui Otegui

Deustuko Unibertsitatea

Artikulu honek 2022an eta 2023an garatutako partaidetza-prozesuan sortutako ezagutza jasotzen du, Deustuko Unibertsitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Etorkizuna Eraikiz" lankidetzaren hitzarmenaren esparruan, Estrategia Zuzendaritzak, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak eta Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzak, Deustuko Unibertsitateko Gizarte Lanaren arloko ikertzaileekin eta proiektu komunitarioak edo ikuspegi komunitarioa duten proiektuak garatzen dituzten hainbat eragileekin lankidetzan. Prozesuaren helburuak bi izan ziren: ezagutza sortzen lagunduko zuen esparru kontzeptual bat adostea, eta Foru Aldundiak egindako Ekintza Komunitarioko Markoa, gizarteratzeko politika sozialaren testuinguruan garatzea. Hori guztia lortzeko, erabilitako metodologia ikerketa-ekintza parte-hartzailea izan zen. Bertan, era kolaboratiboan, ezagutzaren kosorkuntza-prozesuak garatu genituen bi esparrutan: komunitatea eta ekintza komunitarioa kontzeptuak definitzea, ikerketa honetako testuinguruan; eta gaur egungo erronkak identifikatzea, ikuspegi komunitarioa gizarteratzeko politika sozialetan txertatzeko.

Gako-hitzak:

Komunitatea, ekintza komunitarioa, inklusioa, politika publikoak.

Este artículo recoge el conocimiento generado en el proceso participativo desarrollado en 2022 y 2023 en el marco del convenio de colaboración de la Universidad de Deusto y la Diputación Foral de Gipuzkoa "Etorkizuna Eraikiz", impulsado por la Dirección de Estrategia, la Dirección de Participación Ciudadana y la Dirección de Protección a la Infancia e Inclusión Social, en colaboración con investigadoras del área de Trabajo Social de la Universidad de Deusto y con diversos agentes que desarrollan proyectos comunitarios o con enfoque comunitario. Los objetivos fueron consensuar un marco conceptual que facilitara la generación de conocimiento y el desarrollo del Marco de Acción Comunitaria elaborado por la Diputación Foral, en el contexto de la política social de inclusión. La metodología empleada fue la investigación-acción participativa. De este modo, desarrollamos procesos de co-generación de conocimiento que permitieron definir los conceptos e identificar los retos actuales para integrar el enfoque comunitario en las políticas sociales de inclusión.

Palabras clave:

Comunidad, acción comunitaria, inclusión, políticas públicas.

¹ Artikulu honek "Ekintza komunitarioa eta Inklusiorako gizarte-politikak Gipuzkoan" ikerketa-ekintza parte-hartzaileko proiektuan egindako gogoeta teorikoa plazaratzen du. Ikerketa, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak 2022an sinatu zuten Etorkizuna Eraikiz lankidetzaren hitzarmenari lotuta dago. Deustuko Unibertsitateko ikertzaileek egin dute ikerketa, prozesuan parte hartu duten eragileek agoretan partekatutako dituzten ekarpenak, ideiak, gogoetak eta eztabaidak abiapuntu hartuta.

1. Sarrera, helburuak eta ikerketa-metodologia

Etorkizuna Eraikitzenen xedea da elkarrekin Gipuzkoako lurraldearen etorkizuneko erronkak identifikatzea; haiei aurre egiteko modua diseinatzea; ingurune errealean, eragileekin elkarlanean, erantzun posibleak esperimentatzea; eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiko politika publikoetan aplikatzea (Pomares, Lakidain eta Unceta, 2023). Esparru horretan, komunitatearekin egiten den lana gure lurraldearen etorkizuna eraikitzeko funtsezko ildo estrategikoa da.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak, eragile askorekin elkarlanean, ekintza komunitarioaren inguruko marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa landu du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalerrien ekintza publikoa bideratzeko (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a). Marko horrek zenbait erakunde-eragilek egindako eskaerari erantzuten dio, ekintza komunitarioarekin lotuta dagoen ekintza publikoari zentzua, koherentzia eta orientazioa emateko.

Ekintza Komunitarioko Markoak, gure lurraldean, datozen urteetan, udal- eta foru-jarduna orientatzeko ildoak ezartzen ditu. Argi azaltzen du ez garela hutsetik abiatzen, gure lurraldean historikoki ekintza komunitarioaren aldeko ekimen ugari egon direla, baina bizi ditugun garai konplexu hauetan, ekintza komunitarioa zehaztu, ordenatu, sakondu, sustatu eta bultzatu egin behar dela. Horrela, Ekintza Komunitarioko Markoak landu zuen lantaldeak ezarritako marko horrek, ekintza komunitarioarako politika zehazten du, hurbiltasunetik bideratua, erakunde eta eskala ezberdinetan (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a).

Markoak argi azaltzen ditu oinarrian akordatzeko diren kontzeptuen irismena eta ekintza komunitarioa mugatzeko beharrezkoak diren elementuak aintzat hartzen ditu, hala nola, zer den ikuspegi komunitarioa, ekintza komunitarioaz aritzen garenean zer ulertzen dugun, zeintzuk diren lehenetsiak eta zer kontzeptuk duten esangura berezia ikuspegi honetan.

Baina kontzeptuen irismena erabakitzeaz gain, haratago doa, eta markoak metodologia komunitarioa harremanak sustatzean oinarritzen denaren hautua egin eta gero, erabaki kontzeptualen itzulpen operatiboa proposatzen du.

Horretarako hiru eremu zehazten ditu: lehenengoa, testuinguru eta apustu estrategiko honetan administrazioak jokatu beharreko rolak identifikatzen ditu; bigarrena, ekintza komunitarioko politika publikorako estrategiak zehazten ditu; eta hirugarrena, prozesu komunitarioak gidatu behar dituzten printzipio metodologikoak aipatzen ditu (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a).

Estrategien esparruan, politika sektorialetan ikuspegi komunitarioa txertatzea aipatzen da. Honela, hemen

aurkezten ari garen lan honek estrategia honi erantzuten dio, hain zuzen ere, ikuspegi komunitarioa inklusiorako politika sozialetan txertatzeko beharrari.

Testuinguru horretan, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Gizarte Laneko lantaldeak, Unibertsitateak eta Aldundiak duten hitzarmenaren testuinguruan, 2022an ikerketa proiektua aurkeztu zuen ulermen-esparru bat elkarrekin eraikitzeko prozesua bultzatzeko, egindako lanetik abiatuta, gizarte-politikaren esparruan, Gipuzkoan komunitatea eta ekintza komunitarioa nola ulertzen dugun eta zein irismen ematen diogun argitzeko, gure lurraldean proiektu komunitarioak edo ikuspegi komunitarioa dutenak garatzen dituzten eragileekin elkarlanean.

Proiektu hau zuzentzeko eta errazteko, talde eragile bat antolatu zen, proiektuaren lidergoa eramateko. Bertan, Deustuko Unibertsitateko ikerlari taldeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko hiru zuzendaritzako hainbat teknikarik parte hartu zuten: Estrategia Zuzendaritzak, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak eta Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritzak.

Proiektu honen ikerketa galdera nagusiak hauek izan ziren: nola txertatu era operatiboan, ikuspegi komunitarioa inklusiorako gizarte-politikan? Zer erronka dauzkagu hori egiteko? Zein dira erronkak hori gauzatzeko? Zer behar dugu ikuspegi komunitarioa gizarteratzeko politika sozialean txertatzeko?

Galdera horietatik abiatuz eta galdera horiei erantzuteko asmoz metodologia parte-hartzailearen garrantzia azpimarratu genuen, eta ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodologia erabiliko zela erabaki zen. Honela, galdera nagusiak definiturik eta prozesu parte-hartzailea eta kolaboratibo baten bidez erantzunak bilatzeko asmoz, ikerketaren helburuak definitu genituen: ezagutza sortzen lagunduko zuen esparru kontzeptual bat adostea, eta Foru Aldundiak egindako Ekintza Komunitarioko Markoa, gizarteratzeko politika sozialaren testuinguruan garatzea.

Esan den bezala, hori guztia egiteko apustu metodologikoa argia zen: proiektu komunitarioak edo ikuspegi komunitarioa zuten eragileekin elkar lana egitea. Eta hori bultzatzeko, ikerketa-ekintza parte-hartzailea diseinatu zen, aurretik izan ziren esperientzietan oinarrituta. Era honetan, ikerketa, proiektu eta ekintza komunitarioak edo ikuspegi komunitariokoak garatzeko eta egiteko ardura eta konpromisoa zuten profesionalak gonbidatu ziren prozesuan parte hartzera. Hala, talde heterogeneo bat osatu nahi izan zen, gaiari hainbat ikuspuntutatik heldu ahal izateko².

² Prozesu honetan erakunde hauetako teknikari eta ikerlariak gonbidatuak izan ziren: Adinberri; Adinkide; Aptes Fundazioa; Arantzazu Lab; Bakeola; Deustuko Unibertsitatea; Donostiako Udala, Donostia Lagunkoia; Donostialdeko ESla, Osakidetza; EDE Fundazioa; Elgoibarko Udal Gizarte-zerbitzuak; Emaus Fundazioa;

Ikerketa-ekintza parte-hartzailearen metodologia aukeratzea arrazoi nagusi bati lotua dago, alegia, aukera ematen du landu nahi den gaian parte hartzen duten pertsonekin ezagutza partekatua sortzeko, ekintza ematen den testuinguru berean; modu transdiziplinarrean eraikiz; parte-hartzaileek ematen duten ezagutza heterogeneoa baloratzen delako; ezagutzaren antolamendua malgutasunez eta ez hierarkikoki egiten delako; eta ezagutza eraikitzeko prozesuaren kalitatea parte-hartzaileek berek kontrolatzen dutelako (Ferran *et al.*, 2024).

Lankidetzan aurrera egin ahal izateko, inplikaturako eragileek elkar ezagutu eta aitortu behar dute, eta, beraz, beharrezkoa da agorak sortzea, espazio komunak eta partekatuak, non eragileen arteko topaketa sustatzen den, arazoak definitu eta lankidetzan hauei erantzuteko konponbide posibleak negoziatzen diren. Gainera, akordioak identifikatzeko gero, errezeloak eta desadostasunak gaindi daitezke. Era berean, lankidetzaren gune horiek sinergiak sortzen eta bikoiztasunak saihesten laguntzen dute. Gune hori sortzen den momentutik, ikerketa-ekintza parte-hartzaileak aukera ematen du eraikitako ezagutza kolektiboak, parte hartzen duten eragileen ekintza praktikoetan eragitea. Eta horrek guztiak, akordioak ahalbidetzen ditu corpus komun bat osatzeko (Ferran, Guinot eta Berasategui, 2019).

Kontatzen ari garen prozesu honetan, 2022ko irailetik 2023ko abendura bitartean, zazpi agora egin ziren: lau orduko topaketak Deustuko Unibertsitatean, eta bertan ikerketa-helburuekin loturiko aztergaiak landu ziren, elkar-sorkuntzako dinamikak jarraituz, elkarrekin identifikaturako diagnostikotik eta erantzun kolektiboen sorreratik abiatuta. Topaketa horietan honako helburuak zituzten elkarriketak partekatu ziren:

1. Konfiantza-giroa sortzea, proposaturako erronkari elkarlanean heltzeko.
2. "Komunitate" terminoaren esanahia eta irismena definitzea, ikerketa honen testuinguruan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzak aldeztu aurretik, Ekintza Komunitarioko Markoan garatu eta sistematizaturako lana abiapuntu hartuta.
3. Egun Gipuzkoan inklusiorako gizarte-politikaren eremuan ikuspegi komunitarioa modu sistematikoan txertatzeak dakartzan erronkak identifikatzea.
4. Erronkei heltzea eta hauei aurre egitea ahalbidetzen duten ekintzak identifikatzea, gizarteratzeko politiketan ikuspegi komunitarioa txertatzeko.

Eusko Ikaskuntza; Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaordea, Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza; Gurutze Gorria; Legorretako Udal Gizarte-zerbitzuak; Loiolaetxea; Matia Fundazioa; Nura Elkartea; Saiatz mankomunitateko Udal Gizarte-zerbitzuak; Pasaiaiko Udal Gizarte-zerbitzuak; Zabalduz kooperatiba; Zaldibiako Udal Gizarte-zerbitzuak; Zumarragako Udal Gizarte-zerbitzuak.

Elkarriketa horietan guztietan partekatutakoa jasotzeko erabilitako teknika diskurtsoen analisia izan zen. Elkarbanaturako diskurtsoak idatzizkoak eta ahozkoak izan ziren: idatzizkoak, partaideen gogoetak fitxan bidez jaso ziren, eta norbanakoak edo taldekakoak izan zitezkeen, saioaren dinamikaren arabera. Ahozkoak, berriz, ikerlarien landakoadernotan jasoak. Diskurtsoen analisia egiteko sistematizazio-prozesuak egin ziren: maila mikroan, saio bakoitzaren akta egin, partaideekin elkarbanatu, eta horren ondorioz, osatu edo eta aldatuak. Maila mesoan, atal bakoitzari zegokion ezagutza jasotzen zuten txostenak egin, hauek ere bai, partaideekin elkarbanatu eta osatu nahiaz aldatuak. Joan-etorri horietan, akta nahiz txostenak eztabaidagai bihurtu ziren, ezagutza elkarrekin eraikitzeko prozesuaren emaitza hautemangarritzat hartu aurretik (Ferran *et al.*, 2024).

Lehenik, komunitatea terminoaren esanahia eta irismena mugatuko da. Ondoren, komunitatea inklusio eragiletzat hartzen duen printzipioa azalduko da. Eta azkenik, ikuspegi komunitarioa inklusiorako gizarte-politiketan modu sistematikoan txertatzeak dakartzan erronkak azalduko dira. Amaitzeko prozesu honen hurrengo urratsak aipatuko dira.

2. Komunitatea: terminoaren esanahia eta irismena ikerketa honi dagokionez

Aurrez aipatu duguna kontuan izanik, prozesu honetan, Ekintza Komunitarioko Markoa izan da gogoetaren erreferentzia. Baina prozesu orok behar du erreferentzia teorikoak aztertze beharra, are gehiago, prozesua bera parte-hartzaile denean, hainbat eragileekin egiten dena. Kontzeptuak norbanakoengan duten oihartzuna konpartitu eta taldea osatzen dutenen ikuspegiak entzuteko beharra dago, bakoitzaren ekarpenak ulertze aldera. Horregatik, prozesuaren helburua izan da ulermen-esparrua elkarrekin eraikitzeko prozesua bultzatzea, egindako lanetik abiatuta, gizarte-politikaren esparruan, Gipuzkoan komunitatea eta ekintza komunitarioa nola ulertzen dugun eta zein irismen ematen diogun argitzeko, gure lurraldean proiektu komunitarioak edo ikuspegi komunitarioa dutenak garatzen dituzten eragileekin elkarlanean.

Zeregin horri heltzeko, behar-beharrezkoa iruditu zitzaigun astia hartzea komunitate terminoa ikuspegi kontzeptualetik mugatzea. Gai hau lantzeko antolatu genituen agoretako elkarriketetan, konturatu ginen pertsona bakoitzak kontzeptuari esanahi jakin bat ematen diola, eta horrek zaildu egiten du elkar ulertzea. Are gehiago, gaizki-ulertuak ere eman ziren elkarriketetan: kontzeptua ulertzeko modu desberdinak daudelako, komunitate terminoak esanahi ideologikoa duelako, eta bakoitzak bere esparrutik ulertu edo definitzen duelako. Horrek, ezinbestean, gaizki-ulertuak edo zailtasunak sortu zituen gure gogoeta eta eztabaida kokatzeko testuingurua adosteko orduan.

Zerbait elkarrekin egin nahi dugun guztietan bezala, orain ere funtsezkoa da hizkuntza partekatu bat eraikitzea. Horregatik, une honetan eta prozesu honetarako Komunitate terminoarekin zer ulertzen genuen adostu behar izan genuen, hori bai, Ekintza Komunitarioko Markoak komunitatearen kontzeptuari ematen zion adieratik, alegia, komunitatea harreman-sare bezala ulertuz, beti ere.

Nolanahi ere, prozesu honen helburua ez zen definizio akademikoak egitea, ezta dokumentuen analisisa egitea ere komunitatea zer den jakiteko. Baina, jakintzaren kate luzean egon diren ekarpenak kontuan hartu genituen, gure ikusmirak kokatzeko.

Kisnerman-ek (1990) planteatzen duen bezala, komunitatea lurralde-elementu baten barrutitik haratagoko espazio jakin batean gertatzen diren gizarte-harremanen sistema izango da. Beraz, leku jakin batean ezartzen diren dimentsio sozial eta erlazionalen arabera eratzen da komunitatea. Bauman-ek (2006) ulertzen du komunitatea leku hori dela, batez ere harremanezkoa, pertsonen segurtasuna ematen diena. Egilearen ustez, komunitateak leku beroa, aitortua eta ezagutzeko modukoa gogorarazten du, inoiz arrotzak ez garen lekua, non geure beharrei erantzuteko eta ulertzeko borondate ona izan dezakegun. Hala ere, bere ustez, "komunitatea indar guztiekin desio dugun paradisuari egiten dio erreferentzia egiteko beste izendapen bat da" (Bauman, 2006: VII). Horrela, Arrieta eta beste batzuek (2018) proposatzen duen bezala, komunitatea osatzen duten pertsonen bizitza sozialari eta harremanei dagozkien logikekin lotzen da.

Fantova-k (2021) harreman komunitarioak mugatzeko saio bat proposatzen du, pertsonen arteko elkarreraginaren intentsitate- eta maiztasun-mailaren araberrako eskala zehaztuz:

- a. Etxebizitza berean bizi direnen arteko familia lotura edo antzeko lotura sendoak.
- b. Hurbileko pertsonen arteko familia lotura edo antzeko lotura handiak edo estuak.
- c. Bigarren-mailako harremanak, formalizatutako erakunde bidez, intentsitate eta maiztasun handiarekin, eta, gainera, nolabaiteko primarizazio maila bat, subjektuen artean konfiantza, afektua eta elkarrekikotasuna sortzen dutenak.
- d. Auzotasun oneko, adiskidetasuneko, familiako edo antzeko harremanak, intentsitate eta maiztasun ertainarekin elkarrekiko konpromisoa dutenak.
- e. Aintzatespen-harreman ahulak: agurra, identifikazioa, baina ezer gutxi gehiago ematen dutenak.

Vecina-ren iritziz (2013), komunitate baten barruan hainbat ekintza gerta daitezke, hala nola pertsonen arteko harremanak, elkartasuna, desio partekatutako, esperientziak eta gatazkak. Elementu horiek guztiek lurralde jakin bat okupatzen duten herritarren harreman-sareak eta bizi-baldintzak eraikitzen eta ehuntzen laguntzen dute. Gizarte-lotura eta lotura

komunitarioak era askotara sor daitezke, hainbat komunitate mota sortuz. Hala, autoreak honako hau adierazi du:

- a. Kohesio gutxiko komunitate bat aurki dezakegu, talde homogeneo eta primarioz osatua, eta, beraz, kideen artean harremanak daude, baina komunikazio gutxiarekin. Konfigurazio horretan, loturak barne taldekoekin ematen dira; besteekin ez dago loturarik eta horiek kanpo taldea osatzen dute. Beraz, helburua norberaren taldearentzako baliabideak lortzea da. Vecina-n (2013) aipatutako Putman-en (2002) iritziz, konfigurazio horrek besteen baztertzeari bultzatzen du, eta, gainera, ez du sustatzen taldeak berak gizarteratzea lortzea.
- b. Bigarren-egoera bat izango litzateke taldeen arteko loturak eta harremanak egotea, eta, beraz, sare inklusiboagoa eratzea, talde desberdinen gizarteratze-maila handiagoan edo txikiagoan ahalbidetzen duena.
- c. Azkenik, komunitateko hainbat sektore inplikatzeko dituzten harreman-sare zabalagoak aurki ditzakegu, edo komunitatearen testuingurua bera gainditzeko dutenak.

Komunitatearen kontzeptuak, beraz, pertsonak hartzen dituen bizi-espazio, harreman-espazio horri egiten dio erreferentzia, inguru sozial iraunkor samar baten esparruan, non biografia partekatuetatik abiatuta elkarlotutako elkarrekintza multzo bat ezartzen den: "ezein gizaki-agregatu ez da komunitate gisa esperimintatzen, baldin eta biografia partekatutako oinarri hartuta estu-estu lotuta ez badago" (Bauman, 2006: 42).

Komunitatean kokatzen dira, halaber, aldarrikapen kolektibo baten inguruan eratutako talde jakin batzuen interesak eta lehentasunak defendatzen dituzten ekintza kolektiboak. Talde horiek hainbat forma juridiko har ditzakete: erakundeak, elkarteak, kolektiboak, auzo-sareak.

Hau honela, Barbero eta Cortés-en arabera (2005: 18), komunitate-lana honako helburu hauek dituen jardura mota da:

Populazioak antolatzea egoera kolektiboan eraldaketari heltzeko, elkarleen antolaketaren eta ekintzaren bidez. Komunitate-lanak gizarte-bizitza erredentsifikatzen du, parte hartzen duten kolektiboak edo herriak politikoki indartzen ditu, dinamizatu egiten ditu, haien parte-hartzea sustatzen du... Subjektu, eragile kolektibo eta/edo haien arteko harreman-egitura berriak sortu nahi dira, egoera kolektiboan eraldaketari aurre egiteko.

Amunarriz-ek (2021) komunitatearen alde egin du, bizitzaren jasangarritasunerako funtsezko piezetako bat baita, uste baitu komunitatetik bertatik sor daitezkeela pertsonen euskarri izango diren elkarrekikotasuneko eta elkarrekiko laguntzako harreman-sareak, eta komunitatearen eta kideen gaitasunen bidez mobilizatu daitezkeela baliabideak herritarren ongizatea hobetzeko eta/edo zabaltzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen legediak ere jasotzen du (12/2008 Legea), eta jaso izan du hasiera-hasieratik, komunitateak premia-egoerak ebazteko duen garrantzia: legea argia da arreta komunitarioa gizarte-zerbitzuen sistemaren oinarri den printzipioetako bat ezartzeko beharrari dagokionez. Indarrean dagoen Gizarte-zerbitzuen Legeak sistemaren printzipioen artean arretaren hurbiltasuna ezartzen du, eta, beraz, ahal den neurrian, zerbitzuak emateak ahalik eta deszentralizazio handieneko irizpideei erantzunez. Bestalde, egiten den arreta- eta esku-hartze ereduaren erreferentzia nagusia arretaren ikuspegi komunitarioa da eta hurbiltasunekoa, pertsonen beren ohiko ingurunean arreta ematea ahalbidetzeko.

Testuinguru honetan guztian kokatzen da Ekintza Komunitarioko Markoaren komunitatearen definizioaren lanketa, prozesu honetan. Bertan aipatzen da "komunitate" kontzeptua delikatu dela, askotan erabili arren, oso gutxitan definitzen dena. Marko horren arabera, komunitateak talde edo kolektibo baten ideara eramaten gaitu, elkarrekin zerbait komuna dutenak, eta "gu" bat sortzea bilatzen dutenak, gizakion bizitzari zentzua emango dioten helburu, behar eta interes partekatuetan identifikatzetik abiatuta: banakako gizakia gaingiditzen duen zerbaiten parte izatea da (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a).

Kontatzen ari garen prozesu honetan parte hartu zuten lagunentzat, garrantzitsua izan zen azpimarratzea "zerbait komuna izatearen" esanahia; komunitateak aniztasuna baitakar: elementu batzuk komunak dira, baina beste batzuk anitzak, desberdinak. Komunitatea "gu" kolektibo baten parte izatea da, elkarrekin lotzen eta batzen gaituena, baina horrek ez du esan nahi homogeneousak garenik. Horrenbestez, homogeneousotasuna ez dugu emantzat hartu behar eta aniztasunaren aberastasunari dagokion balioa eman behar zaio. Ez dugu ahanzi behar gizarte konplexuetan bizi garela, eta komunitatean askotariko desberdintasunak daudela. Edonola, gatazka edo interes kontrajarriak egoteak ez du esan nahi komunitaterik ez dagoenik. Horregatik, funtsezkoa da zehaztea eta erakitzea zer den edo nola ulertzen dugun partekatzen dugun "zerbait komun" hori. Azken batean, komunitateaz hitz egiteak esan nahi du elkarrekintzak, helburu partekatua, kultura eta harremanak, eta espazio fisikoa kontuan hartzea. Komunitateak (edo parte hartze komunitarioak) helburu partekatu bat lortzen laguntzeko borondatea eskatzen du, baita helburu horrekin interpelatuta eta konprometituta sentitzea ere.

Aniztasunari eta konplexutasunari buruzko ideiek gogorarazi ziguten komunitate ireki eta ez baztertzailerek, aniztasuna aberastasun gisa hartzen dutenek eta ez mehatxu gisa, gizarte-kohesioa sor dezaketela eta, ikuspegi horretatik, inklusioaren alde lan egiteko testuinguru garrantzitsua direla. Hala, "gu" modu kolektiboan erakitzeke prozesuan, aniztasuna integratu behar da, komunitate inklusibo bat osatu ahal izateko, ahaztu gabe komunitatean beti egongo dela gatazka, adostasun eza eta heterogeneotasuna.

Hurbilketa horretatik abiatuta, Ekintza Komunitarioko Markoak komunitatearen kontzeptua ikuspegi operatibo batetik definitzen du eta lurralde-zentzua ematen dio. Izan ere, uste du komunitateari politika publikoetatik begiratzen badiogu, komunitate hori lurralde jakin batean kokatu behar dugula, toki batean zehaztu: auzoa, herria, eskualdea... Komunitatea lurraldean kokatze hori beharrezkoa da ekintza komunitarioak ezartzeko orduan operatiboak izateko (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a).

Komunitateak lurralde jakin bat gogorarazten badigu, hurrengo urratsa da komunitate hori nork osatzen duen adostea, are gehiago ekintza komunitarioko politika publikoa garatu edo sustatu nahi bada. Eta horixe du helburu, hain zuzen ere, markoak eta kontatzen ari garen ikerketa-ekintza prozesuak. Gida moduan erabili genuen Ekintza Komunitarioko Markoaren arabera:

Lurralde-ikuspegi edo ikuspegi operatibo horretatik, ulertuko dugu komunitatearen parte direla egunerokotasunean presentzia duten eta herritarrentzat baliabide diren eragile guztiak, baita instituzionalak ere: eskola, liburutegia edo gizarte-zerbitzuen zentroa, adibidez, komunitatearen parte dira. Baina ahaztu gabe, herririk gabe, elkarrekin gauzak egiteko antolatzen ari diren herritarren presentzia[rik] gabe, ezinezkoa dela prozesu komunitarioaz hitz egitea (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a: 14).

Komunitateak zerikusia du hurbiltasunarekin (fisikoa eta/edo harremanetakoa), eguneroko bizitzarekin, presentziarekin, elkar ezagutzearekin. Komunitatea bertan bizi diren pertsonen nortasuna ematen dien egitura da. Ondorioz, komunitateak toki edo lurralde jakin batean kokatzen direnean, garrantzitsua da komunitatea osatzen duten eragileek parte hartzea komunitatearen definizio operatiboan (auzoa, taldea, herria...). Horretarako, prozesuan parte hartu dutenen iritziz, garrantzitsua da komunitarioa dena egituratzen duten gako hauetako batzuk kontuan hartzea: lurraldea, eragileak (herritarrak, profesionalak), baliabideak, premiak/eskariak, potentzialtasunak, harremanak eta komunitate bakoitzaren historia eta idiosinkrasia.

Komunitatea hainbat eragileren arteko elkarrekintzarako gunea da: herritarrak eta presentziaren bat duten eta herritarrentzat baliabide diren instituzio, erakunde eta enpresa guztiak. Komunitatea bizia eta aldakorra da. Komunitatea ez da estatikoa, prozesu dinamiko eta jarraitu baten bidez eraikitzen eta eratzen da. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da zenbait alderdi zehaztea: nor den komunitatearen subjektua, zein diren komunitate hori antolatzeke arauak eta akordioak, zein diren betebeharrak eta konpromisoak, eta nola zehazten den komunitatea eraikitzeak berarekin dakarren erantzukidetasuna.

Horregatik guztiagatik, eta ekintza komunitarioa, honela ulertzen bada, alegia:

Gizarte-erronkei modu kolektiboan heltzen dieten ekimen eta proiektuak, auzoetako eta udalerrietako bizi baldintzak hobetzea helburu dutenak eta gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa ehuntzeko borondatez lan egiten dutenak, herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatuz eta erraztuz (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a: 9, moldaturik).

Beste begirada bat aktibatzea eskatzen du, "bettaurreko berriak" erabiltzea, begirada komunitarioa ekintzaren erdi-erdian jartzeko, norbanakoari, taldeari eta gizarteari lekua eta lotura emanez.

3. Komunitatea, inklusio-eragile: esparru printzipioa

Behin ikerketa honetako partaideak eta soilik ikergai honen mugetan erabiltzeko, komunitatearen kontzeptuaren esanahia eta irismena adostu ondoren (partaide guztien minimo komuna), elkarriketarekin prozesuarekin aurrera jarraitu genuen. Hurrengo urratsa, ekintza komunitarioa Gizarte-politikaren eremura eramatea izan zen. Hasieratik mugatu genuen gogoeta gizarte-inklusioko politika sozialen eremura, gure arreta foru-gobernuaren ekintzaren alderdi nagusietako batera bideratzeko.

Ekintza komunitarioa inklusioko gizarte-politiken eremuan kokatzeko ahaleginetan, 2021ean Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko taldeak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte-politiketako Departamentuko Haurrak Babesteko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritzak eskatuta, egin zuen ikerketan identifikatutako erronkak berreskuratu genituen. Orduko lan haren helburua izan zen Tolosaldean inklusioko ekintza komunitarioak identifikatzea. Beraz, ikerketa hartan ateratako ondorioak ekarri genituen prozesu honetara, gure elkarriketaren abiapuntu gisa, hala nola, gizarte inklusioa bilatzen duen politika publikoak zein erronkei heldu behar dien agerian jartzen zuten ondorioak ziren. Hauxek:

1. Logika inklusiboei erantzungo dieten proiektu eta ekimen komunitarioak diseinatzea.
2. Banakako eta familiako esku-hartzeen logiketatik esku-hartze komunitarioen logiketara igarotzea.
3. Lurraldeko eragileen arteko komunikazioa, ezagutza eta elkarlana erraztuko duten espazioak egituratzea. Agoraren garrantzia.
4. Lidergoak, rolak eta erantzukizunak definitzea.
5. Komunitatea inklusioko eragiletzat hartzeko aurrerapausoak ematea.

Proposatutako erronka horiek xehetasunez landu genituen agoretan, eta ikusi genuen bosgarren erronka, partekatzen ari ginen ikerketa-ekintza horren baitan zeharkako printzipioa zela: komunitatea gizarte inklusioko eragileetako bat zela.

Idea hori bat dator Ekintza Komunitarioko Markoak aurkezten duen planteamendurekin, marko horrek

ulertzen baitu ekintza komunitarioa gizarte-erronkak modu kolektiboan lantzen dituzten ekimen guztiek osatzen dutela, beti ere, bizi-baldintzak hobetzea helburua izanik, batez ere, herritar ahulenei eta kalteberenei dagokienez, eta gizarte inklusiboagoa ehuntzea helburu dutenak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a). Era berean, Gizarte Inklusioko II. Planak ere kontuan hartzen du ikuspegi komunitarioa, proposatzen duen arreta-eredua definitzerakoan (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022b).

Komunitatea inklusioko eragile bat da, herritar ahul eta kalteberenen bizi-baldintzak hobetzeko helburuari modu kolektiboan erantzuten zaionean. Gidari dugun markoak berak jasotzen du ekintza komunitarioa, herritarren parte hartzearekin batera, kultura demokratikoaren oinarria dela, biek ala biek herritarren inplikazioa eta protagonismoa ahalbidetzen baitute, bai banaka, bai modu antolatuan. Bestalde, inklusioak, besteak beste, harremanetarako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea dakar. Komunitateak elkar topatzea errazten du eta harremanak ehuntzeko aukera ematen du. Hain zuzen ere, harreman horiek dira pertsonen harremanetako kapitalaren oinarria, haientzako euskarri eta babeserako lehen-mailako sarea.

Komunitatea inklusioko eragilea dela uste izateak, komunitatearen eta komunitate horren gaitasun balioa aitortzea dakar. Ikerketa-ekintza honetan parte hartu genuenok jakin bagenekien dagoeneko egiten direla ekintza komunitarioak eta badirela komunitate-esperientzia inklusiboak, baina uste dugu ezinbestekoa dela ekimen horiek babesten eta zabaltzen jarraitzea. Horregatik, beharrezkoa da ekintza komunitarioak eta komunitateko jardunbide egokiak modu sistematikoan ezagutaraztea; gai izan behar dugu herritarrei komunitatean gertatzen denaren berri emateko.

Komunitatea inklusioko eragiletzat hartzeko prozesuan aurrera egin ahal izateko, uste genuen lehen-lehenik beharrezkoa zela komunitate hori nolakoa den jakitea, ezaugarri komunen bat duen talde edo kolektibo gisa: talde edo kolektibo aktiboa den, eragile rola bere gain hartzeko prest dagoena, eta ekintza inklusiboak sortzeko behar diren baliabideak eta prestakuntza badituen.

Behin komunitatearen egiturazko ezaugarriak argitu eta gero, hurrengo pausoak zeintzuk izan beharko luketen zehaztu genituen. Sei pauso edo egiteko identifikatu genituen:

1. Komunitate bakoitzean dagoen aniztasunaz jabetzea. Aniztasun hori, aberastasun gisa ulertu beharrean, beldurrez ikusten da askotan. Horregatik, komunitatea inklusioko eragile dela ulertu ahal izateko, garrantzitsua da gizarteaz bazterketa-egoeren gaineko eta herritarrek inklusioko duten eskubidearen gaineko sentsibilizazio prozesuak bideratzea. Gure lurraldean baditugu erreferentzia izan daitezkeen proposamen zehatzak: Bidelagunak, Zurrumurruak kanpaina, Ongi Etorri

Errefuxiatuak, Mentore programak, etab. Gizarte Inklusiorako II. Planak lehenetsutako erronken artean du gizarte-inklusioren inguruko gizarte-sentsibilizazioa eta herritarren parte hartzea sustatzea. Jarduteko ardatzetako bat, hain zuzen ere, prebentzio eta aktibazio komunitarioa da, sentsibilizazioa eta parte hartzea lortzeko (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022b).

2. Komunitatean bertan elkartzeko espazioak bultzatzea, aniztasuna erakutsi, ikusarazi eta elkarrekiko konfiantzazko harremanak eraikitzeko. Horretarako, funtsezkoa da komunitate bakoitzak dituen gizarte-azpiegiturak aztertzea, Klinenberg-ek (2021) definitu zituen moduan, alegia, gizarte-kapitalaren garapena baldintzatzen duten baldintza fisikoak direla ulertuta. Egileak, aipatutako obra honetan, honako "leku" hauek identifikatzen ditu: erakunde publikoak (liburutegiak; eskolak; gizarte, kultur, kirol eta osasun-zentroak...); patio kolektiboak, auzo-baratzeak, berdeguneak, parkeak...; azokak; erakundeak (elizak, auzo-elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak); merkataritza establezimendu "abegikorak" ("kontsumitzaiz" gainera, "egoteko" aukera ematen dutenak); kirol instalazioak, kirol talde antolatutakoak.
3. "Ezinbesteko" konfiantza eraikitzea, alderdi komunitarioa sortzeko eta lantzeko orduan. Beraz, funtsezkoa da komunitateko botere egiturak aztertzea, eragileen arteko harremanak zein diren eta nolakoak diren ikustea, eta elkarrekintzetarako elkarrekiko konfiantza-maila aztertzea, bereziki administrazioaren eta tokiko erakundearen artean.
4. Erantzukizunak eragile guztien artean banatzea lortzea, eragile bakoitzaren aukeren arabera: norbanakoa, entitatea, gizarte-erakundea, auzo-mugimendua, administrazio publikoa. Garrantzitsua da denak elkarlaneko proiektuetan lotzen saiatzea eta haien parte-hartzea orekatzea.
5. Boluntariotza eta parte hartzeko prozesuak indartzea, komunitatea suspertzeko. Horregatik, funtsezkoa da herritartasun aktiboa eta gizarte-erronkei erantzunak bilatzeko orduan inplikatuaz itatea bultzatzen duten gakoak identifikatzea.
6. Pertsonen lagunduko dieten hurbiltasuneko harremanak ehuntzea bideratuko duten dinamika komunitarioak identifikatzea eta indartzea eta ez mugatzera baliabideen eta ekipamenduen diseinuko aurrepausoetara.

4. Ikuspegi komunitarioa inklusiorako gizarte-politikan: identifikatutako erronkak

Esparru printzipio hori identifikatzetik abiatuta, Unibertsitateko ikertzaile taldeak agorako lanerako abiapuntu gisa proposatu zituen erronkak xehetasunez aztertu eta kontrastea egin ondoren, ikerketa honetan parte hartu genuenok ondoko erronkak elkarrekin definitu eta mugatzea adostu genuen:

4.1. Lehenengo erronka: logika inklusiboei erantzuneko dieten proiektu eta ekimen komunitarioak diseinatzea

Komunitatea inklusioko eragile izatea eta babeseko eta zaintzako ekosistema bat bihurtzea erraztu edo indartu nahi badugu, logika inklusiboei erantzuneko dieten ekimenak eta proiektuak diseinatzea erraztu eta bultzatu behar da. Hala ere, erronka ez da proiektu berriak elkarlanean diseinatzea mugatzen, baizik eta dagoeneko abian dauden proiektuetan ere eragin daiteke, ikuspegi komunitarioa izan dezaten eta logika inklusiboei erantzun diezaieten, honako gako hauek kontuan hartuta:

- Elkarlanean gauzatzen eta ebaluatzen dira.
- Eragileek, elkarrekin eta tartean dauden pertsonen hartzeko dute parte, baita ahulenei eta kalteberenei ere, guztiak baitira komunitateko kide.
- Komunitateari irekita egotea eta ezberdinen arteko elkarrekintzak ahalbidetzen eta kalteberatasun-egoerak gizartearen ikusaraztea.
- Gizarte-politikaren eremua gaitzen dute, eta zeharkako proiektu horietan beste politika publiko batzuk sartzen dira: hirigintza, kultura, hezkuntza, osasuna, etab.

Politika publiko guztietan, ez soilik gizarte-politikan, politikak eta proiektuak elkarlanean eta ikuspegi komunitarioekin diseinatu nahi dira, benetako premiei erantzuteko. Premia horiek komunitatea osatzen duten pertsonen identifikatu dituzte. Diagnostiko kolektibo horiek lehenetik dauden dikotomiak gaitzen dituen "gu" bat eraikitzen lagundu behar lukete: pertsona baneratuak eta baztertuak; bertakoak eta kanpotarrak; adinaren, generoaren, gizarte-klasearen arabera segmentatuak... Hasiera-hasieratik, pertsona guztien (bazterketa-egoeran dauden edo ez dauden) parte hartzea bilatu behar da eta gu eta haiek ardatzaren gainean eraikitzen diren harremanak gaitzen.

Bestalde, beharrezkoa da pertsona guztien igurikimenak eta bizi-proiektuak kontuan hartzea, are gehiago bazterketa- eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbideak diseinatzeko baditugu. Funtsezkoa da igurikimen faltsurik ez sortzea; horregatik, dagoeneko ematen ari diren erantzunak eta haiekin lortzen ari diren emaitzak identifikatu behar dira. Askotan, bizi-proiektu horietan inplikaturik dago komunitatea; horregatik, ezinbestekoa da zehaztea zein jarduerak erantsten dioten esanahia eta potentzialtasuna harremanei, jakinik harremanak eraiki, mantendu eta indartu egiten direla, baita harreman horiek gauzatzen diren bitartean ere.

Horretaz jabetuta planteatzen da lehenengo kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonen entzuteko beharra, haien premiak eta igurikimenak ezagututa, komunitatearen parte har dezaten sustatzeko. Proiektu eta ekimen komunitarioen diseinuak logika

inklusiboari erantzungo dio, betiere abiapuntua pertsona guztien gaitasunak aitortzea bada, baita bazterketa-egoeran daudenenak ere. Gaitasunak identifikatzea funtsezkoa da komunitate inklusiboak sortzeko: komunitatearekin norbanakoak duenagatik eta eman dezakeenagatik lotzea, eta ez duenetik eta behar duenagatik soilik. Potentzialtasunak eta aukeren logikak lehenetsi behar dira, beharraren logikaren gainetik.

Ondorioz, entzute aktiboko harremanak eraiki beharko dira, ahanzi gabe entzute aktiboak, bi noranzkoko prozesua denez gero, erantzukidetasun-giroa sortu behar duela eta "gu" kolektibo bat eraikitzen lagundu behar duela. Horretan lagungarria izango da argi zehaztea joko-arauak, tartean dauden eragileetako bakoitzaren erantzukizunen mugak, har daitezkeen konpromisoak eta, desiragarria izanik ere, oraindik egingarria ez dena.

Erronka horretan, kontuan hartu behar da pertsona batzuk "kanpoan" geratzen direla eta "parte hartzen ez duten" pertsona horiengana iristeko lan egin behar dela. Garrantzitsua izango da, ildo horretatik, hainbat galderari erantzutea: nola hurbildu ez dauden horiengana, nola erraztu komunitatean parte hartzea, nola jakin eta ulertu zergatik ez dauden, eta nola eraiki zubiak banatzen gaituzten hesiak hausteko.

Azkenik, garrantzitsua da politika publikoetako beste eremu eta sistema batzuetan (haurrak edo adinekoak) ikuspegi komunitarioa kontuan hartuta diseinatu eta ezarri diren proiektu berriak kontuan hartzea, besteek hasitako bideak eman duenetik ikasteko.

4.2. Bigarren erronka: lurraldeko eragileen arteko komunikazioa, ezagutza eta elkarlana erraztuko duten espazioak egituratzea. Agoraren garrantzia

Etimologiari begiratuta, agora hitza grekoko *ἀγορά* (agorá) hitzetik dator. Izen horri *ἀγοίρω* (agueiro) aditzetik eratorria da eta aditzak "elkartu", "bildu" esan nahi du. Antzinako Greziako hirietan, agora plaza publikoa zen, herritarrek elkartzeko eta eztabaidatzeko tokia. Hiriko espazio hori erdigune soziala, politikoa eta administratiboa zen. Herritarrek bertara hurbiltzen ziren haien eguneroko bizitzan eragina zuten askotariko gaiak aztertu eta eztabaidatzera. Hori horrela izanik, agora esparru komun eta partekatua gisa ulertzen dugu, eragileek arteko topaketa bultzatzeko duena, gizarte-arazoak definitzeko eta arazo horiei konponbideak bilatzeko, errespetuan eta horizontaltasunean oinarritutako harremanetatik abiatuta. Agora, espazio fisiko batetik harago, harremanetarako espazioa da; hurbiltzen diren pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzen duen leku egituratua. Espazio komun horrek harremanak, jakintza eta hausnarketa bateratua sortzeko aukera ematen du. Agora errespetuan eta begirada eta ikuspegi desberdinak trukatzeko oinarritzen da, eta hura osatzen duten pertsonen ahots guztiei egiten die leku. Agorak

harreman eta lotura sareak eraikitzen lagundu nahi du, erantzunak lankidetzaren eta baterako parte hartzearen gainean eraikitzeko behar den kidea sentimendua sendotzeko (Ferran, Guinot eta Berasategui, 2019).

Erronka honek inklusioaren alde lanean ari diren eragile komunitarioen artean sinergiak sortzea eta ahalbidetuko duten espazioak egituratzeko beharra azpimarratzen du. Ildo horretatik, lehen-lehenik adostu beharko da zein eragilek hartu beharko lukeen parte sor daitezkeen agoretan. Segur aski, galdera horren erantzuna ez da oso zehatza izango, kokalekuak baldintzatuko baitu: tokia, udalerria, lurraldea... Argi dago, ordea, inklusioaren alde lan egiteko aurrera eramaten diren ekintzen esparruan kokatzen badira, begiradak inklusiboa eta zeharkakoa izan beharko lukeela eta agora horretan inplikaturako eragileak zehazteko orduan, ikuspegi zabala behar dela, modu batera edo bestera, zerbait esateko duten guztiengana edo ekintzaren protagonistengana irekia. Gainera, garrantzitsutzat jotzen da herritarren eta, bereziki, bazterketa-egoeran dauden pertsonen parte hartzea kontuan hartzea.

Horretarako, beharrezkoa da bazterketa-egoeran dauden pertsonen parte hartzeko espazioak eratzea, beste modu sortzaileago batzuk bilatzea, beste metodologia batzuk, inklusiboak izango direnak eta pertsonen hainbat modutan parte hartzeko aukera emango dietenak. Bide-sortzaileak aurkitu behar dira, harremanetako espazioak eta komunikazio-prozesuak sortzeko, pertsona kalteberak eta baztertuek parte hartzeko modua izan dezaten. Ildo horretatik, eta inklusioaren esparruan, udalerriko herritar berriei harrera egiteko espazioak sortzearen garrantzia nabarmentzen da eta, horrekin batera, etorri berrien eta lurraldeko bizilagunen arteko zubi izan daitezkeen figurak (banakakoak edo instituzionalak) identifikatzeara, harrera eta bidelaguntza helburu, dagoeneko Gipuzkoako hainbat udalerrian egiten den bezala.

Ikuspegi komunitarioak herritarren parte hartzearen garrantzia azpimarratzen du, komunitatea herritarren elkarrenginerako espaziotzat hartzen baitu, herritarrek gizartean parte hartzeko duten eskubidea gauzatzeko egokia. Baina, horrekin batera, komunitatearekin ere lan egin beharko da, elkarrekin adosteko nola lagundu nahi duten inklusioaren erronkan. Beraz, komenigarritzat jotzen da espazio kolektiboak sortzea, herritarrek, erakunde pribatuetako ordezkariak (gizarte-erakundeak edo enpresak) eta lurraldeko administrazio publikoetako ordezkariak aldi berean parte hartzeko.

Hala ere, agora berriak sortu aurretik, ezinbestekoa da dagoeneko tokian bertan (maila mikroan) eta lurraldean (maila mesoan) daudenak identifikatzea, haien funtzioa eta funtzionamendua aztertzea, indartzea eta, behar izanez gero, agora berriak sortzea, baita makro-mailan ere. Ezinbestekoa da agora horiek behetik gora sortzea (tokitik lurraldera), partekatua nahi diren egoeren ikuspegi sistemikoa galdu gabe.

Hori kontuan izanik, ezar daitezkeen agoren ezaugarrietako batzuk identifikatu zituzten parte-hartzaileek:

- Inplikaturako eragile guztiek osatu behar dituzte, arestian zeharkakotasunari eta begirada zabalari buruz esandakoa kontuan hartuta, are gehiago inklusioaren alde lan egiten duten kolektiboen, erakunde publikoen eta pribatuen aniztasuna aintzat hartzen badugu.
- Agorek ezberdinen arteko lankidetzaren sareak sortzen lagundu behar dute eta topo egiteko eta harremanetan jartzeko bidea eman behar dute. Era berean, administrazioen barruan agorak sortu behar direla ere ikusi da, sail berezietan lan egiteko modua gainditzeko: agorak, sailen arteko eta erakundeen arteko sorkuntza-espazioak izan daitezke.
- Lankidetzarako espazioek errepikakorrek eta etengabeak izan behar dute, eta sistemen parte izan behar dute, egitura formal eta funtzionalak direlako eta ez daudelako soilik profesionalen borondatearen mende.
- Topaketa horien artean, garrantzi berezia du erreferentziazko profesionalen arteko loturak sortzeko. Ezin dugu ahanzi osasunaren eta gizarte-politiken eremuetan erreferentziazko profesional bat izatea herritarren eskubidea dela. Agorek aukera eman beharko lukete "kasuaren" ikuspegia gainditzeko (sistema bakoitzean erreferentziazkoa den profesionalaren figurarekin lotuta dagoena) eta ibilbide pertsonalizatuaren eta bizitzako historien ikuspegira hurbiltzeko (pertsonaren ikuspegi holistikoa).

Lankidetzaren sare horri eutsi ahal izateko, sarearen euskarri izango diren tresnak pentsatu behar dira. Gure solasaldietan, zenbait adibide proposatu ziren: marko kontzeptual komunak (Ekintza Komunitarioarako Markoa izango litzateke horietako bat); direktorio eguneratuak, eragileak ezagutzeko, erakunde sareak...

Horrenbestez, ikerketa-ekintza parte-hartzaileko prozesu honetako parte-hartzaileek adierazi zuten baliabideak eta denbora behar direla parte hartzeko espazio horiek sortu eta mantentzeko. Era berean, tartean dauden eragile guztiek nolabaiteko malgutasunez jokatu behar dute, egitura bakoitzetik atera eta inklusioari lagunduko dioten beste espazio batzuk elkarlanean eraikitzeko.

4.3. Hirugarren erronka: Ikuspegi komunitarioa txertatzea banakako eta familiako esku hartzearen logiketan

Komunitatea desberdintasun- eta kalteberatasun-egoerak bizi dituzten pertsonen inklusiorako eragilea dela ulertzen badugu, banakako premiei erantzuteko ez da nahikoa izango banakako eta familiako esku hartzeak egitea; aitzitik, ikuspegi komunitarioko esku hartzeak ere beharko ditugu. Esku hartze prozesuan begirada zabaldu behar dugu eta ikuspegi

komunitarioa txertatu, bai banakako eta familiako esku hartzean, bai taldeko esku hartzean. Ideia hau argi azaldu genuen ikerketa-ekintza honetako partaideek.

Ikuspegi-aldaketak eskatzen du pertsonekin elkar eragiten duten eragileen esku hartze helburuetan ikuspegi komunitarioa ere txertatzea, ikuspegi komunitario horrek bultzatzen eta bideratzen baititu profesionalak arreta-sistema desberdinen jarduerak integratzera, horrela faktore askotako errealitateei erantzun ahal izateko, zatikako logikak gaindita. Profesionalentzat erronka da aldaketa hori egitea eta haren garrantzia azpimarratzea.

Inklusioak, gure ordenamendu juridikoan jasota dagoen bezala (385/2013 Dekretua), zerikusia badu pertsonak (bakoitzak harremanetarako bere gaitasun pertsonal eta soziala eta gizartean parte hartzeko eskubidea gauzatzeko benetako aukera dituela) gizarte-babeseko sistemetara erraz iristearekin eta herritar gisa dagozkien eskubide eta betebeharrak gauzatzeko behar duten informazioa erabiltzeko erraztasunarekin. Ikuspegi komunitarioa ezin dugu ahanzi, arrisku- edo bazterketa-egoerak bizi dituzten pertsonen beren inklusio prozesuetan aurrera egingo dutela bermatzeko orduan. Izan ere, gizarte-inklusioko berekin dakar, pertsonak gizarte-ondasunen ekoizpenean eta kontsumoan aktibatzeaz gainera, gizartean modu aktiboan parte hartzea, herritar izateaz jabetzea, hautatzeko eta erabakiak hartzeko gai izatea, eta komunitateko kide gisa inplikatzeko.

Ildo horretatik, Gizarte Inklusiorako II. Planaren arabera, gizarte-inklusioren ikuspegi honetatik esku hartzeak honako hau eskatzen du:

Errehabilitazio- edo normalizazio-eredu batetik inklusio eredu batera igarotzea, arretaren ardatza pertsona izan beharrean, gizarte-ingurunea eta gizarte-eskubideen bermea izan dadin, kontuan hartuta bazterketa-faktore askok komunitarioa eta egiturazkoa den horretan dutela jatorria eta konponbidea (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022b: 54, moldaturik).

Baina agoretan izan genituen elkarrizketetan ikusi zen, horrekin batera, behar-beharrezkoa dela baliabideak (denbora, zerbitzu eta ekipamendu berriak, etab.) eskaintzea, bide hori egiten lagunduko duten ekintzak ezarri ahal izateko. Era berean, beharrezkoa da ebaluazio-helburuak identifikatzeko pausoak ematea, proposatzen den esku hartze ereduaren aldaketaren irismena balioetsi ahal izateko. Horrekin batera, gizarte-baliabideen diseinua malgutu behar da eta arreta irizpideen inguruan gogoeta egin. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua iruditzen zaigu profesionalen kontratazioetan (lan-baldintzak) eta zerbitzuak emateko lizitazioetan, zuzeneko arretaz gain, komunitatearekin egiten den lana ere kontabilizatzeko. Horrek ahalbidetu beharko luke profesionalen lan komunitario hori egiteko behar duten denbora edukitzea.

Bestalde, begirada-aldaketa hori egin ahal izateko, lehentasunezkoztat jo zen dagoeneko eskaintzen diren

zerbitzuetan edo abian diren proiektuetan jarduteko logikak eta esku hartzeko metodologiak ebaluatzea, sistema desberdinetako (osasuna, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, kultura...) teknikarien eta profesionalen zereginen barruan ikuspegi komunitarioa txertatzeko eta, horrela, esku hartze eredu hurbila eta komunitatearekiko irekia eraikitzeko. Ildo horretatik, gure jarduera garatzeko lan-espazioen inguruko berariazko hausnarketa ere partekatu nahi izan genuen: bazterketa-egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzeko espazioetako asko itxiak dira, eta aldeaz aurretik hitzordua eskatuta iristen da haietara. Gure iritziz, funtsezkoa da espazio horiek irekitzea, kalean gehiago egotea, pertsonak bizi diren espazioetara sarriago hurbiltzea. Aurrera eramaten ditugun ekintzen norabidea berrikusi behar dugu, aztertze nola txertatu ikuspegi komunitarioa banakako eta taldeko esku hartzeetan.

Aztertu beharreko beste gai batzuek zerikusia dute, alde batetik, eragileen berariazko prestakuntzarekin, eta, beste alde batetik, komunitatea sentsibilizatzearekin, pertsonen inklusioan zeregin aktiboa har dezan, Ongi etorri Errefuxiatuak, Bizilagunak edo Mentoreen kanpainen filosofian ikusten den bezala. Horretarako, funtsezkoa da gizarteari ulertaraztea zer dagoen bazterketa-egoeran atzean: gizarte eta egiturazko faktoreek sortutakoak dira, baina pertsonen banakako bizipena dira, aldi berean (Zamanillo, 1999), gizarte-bazterketaren egiturazko arrazoiak salatu eta kontuan hartu behar baitira.

4.4. Laugarren erronka: lidergoak, rolak eta erantzukizunak definitzea

Txosten honen hasieran aipatu den bezala, partekatutako lan-prozesuan adostu genuen komunitatea, hurbilketa operatibo batetik, pertsonen egunerokoa presentzia duten eragile guztiek osatzen duten lurralde espaziotzat hartzea, eragile horiek herritarrentzako baliabide izan daitezkeela jakinik. Komunitatearen barruan sartuko genituzke, halaber, lurralde jakin bateko herritarrak, antolatuta egon ala ez. Ildo horretatik, lurraldean presentzia duten eta herritarrentzako baliabide bat izan daitezkeen eragileak identifikatzerakoan, erakunde publiko, gizarte-erakunde, gizarte-mugimendu, irabazi asmorik gabeko entitate, enpresa, lider informal eta abarrez ari gara. Zehazki, eta aurrera eramaten ari garen ikerketa-ekintzaren xedea kontuan hartuta, gure lurraldeko pertsona ahul edo kalteberenei arreta eskaintzeko, modu batera edo bestera, baliabideak, proiektuak edo ekintzak bideratzen dituzten eragileez ari gara.

Beraz, komunitatea inklusio eragile bat dela uste badugu, honako hauek egin beharko ditugula adostu genuen:

- dagoeneko martxan dauden eta etorkizunean diseinatu ditzakegun proiektuek eta ekimenek logika inklusiboari erantzuneko dien ikuspegi komunitarioa izango dutela bermatzea;

- lurraldeko eragileen arteko topaketa, komunikazioa, ezagutza eta elkarlana erraztuko duten espazioak egituratzea;
- eta ikuspegi komunitarioa indartzea banakako eta familiako izaera duten esku hartzeetan.

Hori guztia egiteko, eta ekintza komunitarioa lurraldean esku hartzen duten eragileen arteko harremanak sustatzean oinarritzen bada, beharrezkoa da beste urrats bat ematea eta elkarlaneko prozesu komunitarioak sortzeko beharrezkoak diren rolak, erantzukizunak eta lidergoak definitzea.

Ekintza Komunitarioko Markoak administrazio publikoaren bi rol identifikatzen ditu, ekintza komunitarioa bultzatzeari dagokionez: bideratzea eta eraikitzea (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a). Lurralde baten gizarte-kapitala trinkoa eta sendoa denean, komunitatea aktiboa denean eta eragileen arteko harremanetako sarea sendoa eta finkatua denean, administrazioak bideratzaile izan beharko luke, gainerako eragileek gauzak egitea erraztu beharko luke, bakoitzak bere proiektuak aurrera eramateko, dagokion autonomiarekin. Rol horretan garrantzitsua da entzuteko eta behatzeko gaitasuna, eta harremanen sarea sendotzen lagunduko duten elkarriketak eta harremanak bideratzea. Gizarte-kapitala ahulagoa eta hauskorra denean eta komunitatea aktiboa ez denean, erakunde zereginak eraikitzailea izan beharko luke: proiektu, programa eta zerbitzu finalistak pentsatu eta ezarri beharko lituzke, komunitatea inklusio-eragile gisa indartzeko eta harremanetako sare trinkoa sortzeko pausoak emateko.

Bai bideratzaile gisa, bai eraikitzaile gisa, beharrezkotzat jotzen dugu administrazio publikoak lurraldeko harremanetako gizarte-kapitala indartzeko lan egitea eta komunitate inklusiboak eraikitzen laguntzea. Horretarako funtsezkoa da modu horretan lan egitearen aldeko konpromiso politikoa, helburua lortzeko behar diren baliabide ekonomikoak, prestakuntzakoak eta teknikoak ematearen aldeko apustua egingo duena.

Horrenbestez, administrazio publikoak hartu beharko luke prozesu komunitarioak lurralde jakin batean lan egiten duten eragileekin elkarlanean gidatzeko erantzukizuna. Administrazioak rol eraikitzailea hartzen duenean ere, kontuan hartu behar ditu lurraldean elkarrekin harremanetan dauden eragile guztiak, agian sakabanatuak, koordinazio eta antolaketa gutxiak. Administrazioak rol eraikitzailea hartzen duenean, pentsatu egin beharko du nola gauzatzen duen rol hori; izan ere, bakarki egiten badu, zaildu edo, are gehiago, eragotzi egin dezake komunitatea osatzen duten gainerako eragileek beren gizarte-konpromisoak modu proaktiboan hartzea.

Nolanahi ere, lidergo partekatua bultzatu behar da, eragile bakoitzak bere protagonismoa eta, horrekin batera, bere erantzukizuna duela jakinik. Komunitate kohesiodunak indartzeko, bereziki azpimarratu beharko da elkarlaneko gobernantza-prozesuek horizontalak eta zeharkakoak izan behar dutela.

Markoak berak adierazten du administrazioaren azken helburua komunitatea eraikitzea eta erakundeen lidergoa eragileen artean gero eta partekatuagoa izateko lan egitea izan behar dela, eragile bakoitzak bere gain hartutako autonomiaren eta erantzukizunaren isla (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022a). Gizarte Inklusioko II. Planak, aldi berean, lurralde-ikuspegia aipatzen du arreta-ereduaren oinarritzko elementuen artean. Eta, horretarako, gizarte-zerbitzuetan lurralde lidergoa hartzen jarraitzearen alde egiten du. Nolanahi ere, eta Planaren ikuspegi komunitarioari begiratuta, eta esku hartze komunitarioa batez ere tokiko esparruan egiten dela kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei eta tokiko entitateei ekintza komunitarioa bultzatzen laguntzeko eginkizuna hartuko luke bere gain (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022b).

Azken batean, lidergo hori gauzatzeko moduei eta estiloei buruzko hausnarketa egin behar da, autonomia eta erantzunkidetasuna sortu beharrean, klientelismoa eta mendeko harremanak ekarriko dituztenak saihesteko. Gainera, administrazioak berak gogoeta egin behar du bere egitura propioari buruz: sailetan egituratuta egoteak eta sailen artean lanik ez egiteak lidergo argiak zailtzen ditu (administrazioak hainbat eskumen-maila ditu, sailetan antolatuta dago..., beraz, galdera hauxe da: administrazioaren eremu horien guztien artean, nork hartu beharko luke lidergoa? Lurralde bakoitzaren arabera da?). Bestalde, garrantzitsua da ebaluatzea zein den komunitatea osatzen duten gainerako eragileek administrazioari buruz duten iritzia, sortzen duen konfiantza-maila. Horregatik, beharrezkoa da konfiantzazko harremanak sortzeko lan egitea, bai administrazioaren barruan (sailen artean eta erakundeen artean), bai kanpoan, komunitatea osatzen duten gainerako eragileekin.

5. Hurrengo urratsak

Orain arte azaldu den lan hau guztia egin ondoren, eta Ekintza Komunitarioko Markoan zehaztutako edukia kontuan hartuta, beharrezkoa da identifikatutako erronkei eta desfioei heltzea ahalbidetuko duten ekintzak identifikatzen aurrera egitea, ikuspegi komunitarioa inklusiorako politiketan txertatzeko.

Horretarako, agoretan, gure esperientziez, ikaskuntzaz eta jakintzaz, gure praktika komunitarioaz gain, beste pertsona eta erakunde batzuenak ere partekatu genituen, hainbat badirelako aspalditik komunitate-ikuspegia beren zereginetan txertatzen dutenak. Partekatze hori Ekintza Komunitarioko Markoan identifikatutako estrategietan oinarrituta egin zen, estrategia horiek antzemandako erronkei heltzeko ardatzak direlakoan. Horrekin guztiarekin, erronkak identifikatuta, estrategiak onartuta eta gure esperientziak matrize horretan kokatuta, ekintza-karta bat definitu genuen, errezeta-liburu bat edukitzeko ideia saihestuz. Horregatik, "menua"-ren metafora baztertu eta "karta"-ren metaforaren alde egin genuen; izan ere, "karta" batek egoerak, iritziak, beharrak eta/edo baliabideak kontuan hartuta hautatzeko aukera ematen du. Horrela, lurralde edo testuinguru bakoitzak, bere idiosinkrasiaren arabera aukeratuko du zein erronkatatik landu ekintza komunitarioaren eransketa; edo zein estrategiatatik abiatu prozesua; eta, ondoren, definitutako ekintza multzoaren barruan, zein diren diagnostiko partekatuari hobekien erantzuten diotenak.

Era honetan, bi urte horietan egindako lana operatibo, erabilgarri egin genuen; Aldundiaren Ekintza Komunitarioko Markoaren ildoak jarraituz, beste urrats bat emanez³. Urratsaren tamaina, sakontasuna eta jarraikortasuna ebaluatzeko unea iritsiko da, Ekintza Komunitarioaren Markoaren inplementazioaren ebaluazioa egiten denean.

³ Artikulu hau idazten dugun bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiko, Herriarren Partaidetzako Zuzendaritzak ekintzen "karta" jasotzen duen gida prestatzen ari da, egindako lana argitaratu eta zabaltzeko helburuarekin.

Aipatutako bibliografia

- AMUNARRIZ, C. (2021): "Trabajo social comunitario y Agenda 2030: dos piezas clave para la sostenibilidad de la vida", *Servicios Sociales y Política Social*, XXXVIII. bol., 125. zb., 53.-68. or.
- ARRIETA, F.; IZAGUIRRE, A.; SEGÚ, M., eta ZUÑIGA, M. (2018): "La comunidad al rescate: algunas reflexiones sobre las políticas estatales de activación comunitaria en Europa", *Zerbitzuan*, 65. zb., 5-18 or., <<https://doi.org/10.5569/1134-7147.65.01>>.
- BARBERO, J. eta CORTÉS, F. (2005) *Trabajo comunitario, organización y desarrollo social*, Bartzelona, Alianza.
- BAUMAN, Z. (2006): *Comunidad: en busca de seguridad en un mundo hostil*, Madril, Siglo XXI.
- EUSKADI (2008): "12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte-zerbitzuei buruzkoa", *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 246. zk., 2008-12-24.
- (2013): "385/2013 Dekretua, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnari buruzkoa", *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 149. zb., 2013-08-07.
- FANTOVA, F. (2021): "Construir fraternidad: los cuidados y la agenda comunitaria del bienestar", in GOMÁ, R. eta UBASART, G., *Vidas en transición. (Re)construir la ciudadanía social*, Madril, Tecnos, 295.-313. or.
- FERRAN, A.; GUINOT, C., eta BERASATEGUI, A. (2019): *Gobernanza colaborativa para la inclusión social: una experiencia de investigación y acción participativa*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- FERRAN, A.; GUINOT, C.; ETXEBERRIA, B. eta BERASATEGUI, A. (2024): "La IAP: una propuesta metodológica para la acción comunitaria", *Arxius de Ciències Socials*, 50. zb., 51.-68. or., <<https://doi.org/10.7203/ACS.50.29407>>.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2022a): *Ekintza komunitarioa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa*, I. g., Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2022b): *Gipuzkoako Gizarte Inklusioko II. Plana. Elkar-Ekin, 2022-2026*, I. g., Gipuzkoako Foru Aldundia.
- KISNERMAN, N. (1990): *Comunidad: teoría y práctica del trabajo social*, Buenos Aires, Humanitas.
- KLINENBERG, E. (2021): *Palacios del pueblo. Políticas para una sociedad más igualitaria*, Madril, Capitán Swing.
- POMARES, E.; LAKIDAIN, A. eta UNCETA, A. (2023): "Etorkizuna Eraikiz: ereduaren oinarri kontzeptuala", in BARANDIARAN, X.; CANEL, M. J. eta BOUCKAERT, G. (ed.), *Elkarlaneko gobernantza eraikitzea ziurgabetasun garaietan. Gipuzkoako Lurralde Historikoko ikasgai praktikoak*, Leuven, Leuven University Press, 39.-50. or.
- VECINA, C. (2023): "La acción comunitaria, un camino para la integración social y la interculturalidad", *Trabajo Social Global*, 3. bol., 5. zb., 54.-75. or.
- ZAMANILLO, T. (1999): "Apuntes sobre el objeto en Trabajo Social", *Cuadernos de Trabajo Social*, 12. zb., 13-32 or.